

 IBARRAKO UDALA GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA	Espedientea:	Oinarrizko dirulaguntza izendunak 1000 2023WDIZ0009
	Sarrera-erregistroa:	003783 - 2023/12/12
	Dekretu-zk:	283/2024
	Titularra:	KILOMETROAK KULTUR ELKARTEA
	Ordezkarria:	NEKANE ARTOLA LABORDETA
	Gaia:	Kilometroak 2024 dirulaguntza

283/2024 ALKATE-DEKRETUA

2023 abenduaren 12an, NEKANE ARTOLA LABORDETA andereak, KILOMETROAK KULTUR ELKARTEAREN izenean 003783 sarrera erregistro zenbakia duen idatzi bidez dirulaguntza eskaera aurkeztu zuen Ibarra Udalean.

Aipatutako eskaera bidez, AZPEITIKO IKASTOLA IKASBERRI KOOPERATIBAK 2024. urtean antolatuko duen KILOMETROAK jaialdia diruz laguntzea eskatu dio Ibarra Udalari.

2023 martxoaren 21ean egindako Ibarra Udalbatzaren ohiko osoko bilkuran, besteak beste 2024-2027 epealdirako dirulaguntza plan estrategikoa onartu zen.

Bertan, euskara alorreko dirulaguntzei dagokionez, 2024 urterako, KILOMETROAK antolatzen dituen ikastolarentzat 800 euroko dirulaguntza izenduna aurreikusten da. Dirulaguntza hori gain hartzeko, Ibarra Udalak 1 10.335.00.481.03 2024 kontu saila du.

Hiru ardatz nagusitan oinarrituko da aurtengo Kilometroak jaialdia: euskara, kulturartekotasuna eta herrigintza. Hirurak ere Ibarra Udalaren irizpideekin bat datozen baloreak.

Ondorioz, Alkatetza honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21.1 artikulua, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 24.artikulua eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Jardunbide eta Araubide Juridikoaren 41.artikulua arabera esleitzen zaizkion ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU

LEHENA.- Arestian azaldutakoaren baitan, 2024-2027 urteetarako dirulaguntzen planaren 2024 ekitaldiari dagokion EUSKARA departamentuak kudeatzen dituen dirulaguntzetan jasotzen denaren baitan, IBARRAKO UDALA taldearen eskaeraren egokitasuna ondorioztatzen da.

BIGARRENA.- Ematea 800 euroko dirulaguntza Azpeitiko Ikastola Ikasberri Koop taldeari, euskara, kulturartekotasuna, eta herrigintza sustatzea helburu duen ekimena antolatzeko. Eta, kontu zenbaki honetara ordaintzea: ES22 3035 0235 2223 5003 5198.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza izendun moduan ematea aipatutako kopurua, Kilometroak delako Gipuzkoan euskalduntasuna eta euskal kultura, administrazioekiko elkarlanean eta hezkuntza-komunitate osoa bilduz, sustatzen dituen jai bakarra.

LAUGARRENA.- Ebazpen honen berri interesatuari ematea.

BOSGARRENA.- Ebazpen honen berri udalbatzari ematea egiten duen hurrengo lehen

osoko bilkuran.

Ibarra, 2024ko maiatzaren 13an.

Igor Zapirain Lizarribar

Alkatea



EKS | CSV: **ESKU6deb5c7b-69d1-4e85-aa62-299ce55387f7**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04210>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04210>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023WDIZ0009-Dekretua/Decreto ()